

Nola idatzi...

# Espezieak

Wikipedia editatzean, batzuetan beldur pixka bat ere izaten dute hasiberriek; bereziki, eskolako lan baterako lehendabiziko aldiz Wikipediara ekarpena egiten ari diren ikasleek. Gida hau Wikipediara historiari buruzko edukiak gehitzeko lana eman zaien ikasleentzat da.

## Izan zaitez zehatza

Wikipedia baliabide bat da, milioika pertsonak historiari buruzko informazioa jasotzeko erabiltzen dutena. Wikipedian historiari buruz irakurtzeko arrazoiak historia bezain askotarikoak dira. Pertsona eta gertaera historikoei buruzko eduki zehatz eta objektiboak dokumentatuz eta partekatuz, lagunduko duzu ziurtatzen mundu osoko jendeak giza jakintzaren eremu zabalago bat duela eskura.

## Uler itzazu jarraibideak

Har ezazu denbora, hemengo iradokizunak irakurri eta ulertzeko; iradokizun hauek Wikipediara egiten dituzun ekarpenei baliorik handiena emateko bidea emango dizute. Jarraibide hauek betetzen ez dituen zerbait argitaratzen baduzu, hori konpontzeak denbora eta ahalegina eska dezake: edukia hobetzen eman zenezakeen denbora eta ahalegin bat. Jarraibide hauen barruan lan egiten eroso sentitzen ez bazara, esaiozu zure irakasleari ea Wikipediaz kanpoko lanen bat emango dizun.

## Jardun ezazu beste editoreekin

Wikipediako esperientziaren parte bat da beste editore batzuen iritziak jaso eta haiei erantzutea. Ez itxaron azken eguneraino ekarpen bat egiteko; bestela, ohar eta iradokizun lagungarriak galduko dituzu. Wikilariak zure lanari buruzko galderei erantzun diezaiekete, edo beharbada galderak egingo dizkizute. Galderarik egiten badizute, erantzun iezaiezu. Esker-

tu iezaiezu emandako laguntza, eta lan egizu haiekin batera, artikulua hobetzeko. Beharbada aldaketak egingo dizkiote zure lanari; edo, jarraibide hauek betetzen ez baditu, artikulutik ezabatuko dute. Horrela gertatzen bada, ez ezazu berriz eduki hori sartu besterik gabe! Galdetu iezaiozu edizioa egin duenari, ea zergatik egin duen, eta ea nola hobetu dezakezun. Eztabaida funtsezko osagaia da Wikipediako prozesuan.

## Saihestu ezazu hurbiletik parafraseatzea

Erabil itzazu zeure hitzak. Plagioa egitea, testuak kopiatuz edo hurbiletik parafraseatuz (hau da, hitz gehienak aldatuz, baina testu originalaren egitura eta esanahia mantenduz), arauen kontrakoa da.

Plagioa egitea zure unibertsitateko ohore lege akademikoa urratzea da. Plagioari, Wikipedian, beste wikilari batzuek antzemango diote, edo tresna automatikoei. Hori gertatzen denean, beharbada zure lana ezabatuko dute, eta online erregistratuta geratuko da plagio gertaera bat zure kontuari lotuta. Baliabide eta autore estandarrak ere —hala nola ikasliburuak— egile eskubideen pean daude, eta inoiz ez dira zuzenean kopiatu behar. Plagioari buruzko arauak Wikipediako alde guztietan aplikatzen dira, baita zure proba orriko zirriborro eta oharrei dagokienez ere.

Arazo hori saihesteko modurik onena da ziurtatzea zeure materiala benetan ulertzen duzula, eta horri buruz zeure hitzekin idazten duzula. Hurbiletik parafraseatzea zer den garbi ez badakizu, jar zaitez harremanetan zure unibertsitateko Euskara Zerbitzuarekin.

## Jar ezazu zeure aletxo

Har ezazu astia arauak eta jarraibideak ulertzeko. Behar bada beldurgarri samarrak irudituko zaizkizu, baina aurki zure jakintzen eta zentzuaren ekarpena egiten ari zure zara, zuk eta milioika lagun gehiagok egunero erabiltzen duzuen baliabide batera.

## Idazten ari zaren artikulua planifikatzea

- Aukera itzazu gaikideek berrikusitako aldizkari edo liburuetan literatura ugari duten eta Wikipedian ondo estalita ez dauden gaiak.
- Espezie baten artikulua sortu baino lehen, egiazta ezazu ea aurretik ba ote dagoen, haren izen arrunta eta zientifikoa bilatuz.
- Egiazta ezazu ea artikulua aski garatua dagoen ala motz samarra den. Lehendik ondo garatuta dauden artikulua alde batera utzita, har ezazu oraindik eduki asko falta duen baten bat.
- Nola edo hala giza osasunari lotutako adierazpenen bat egiten baduzu, iturriak aipatzeari dagokionez oso jarraibide zorrotzak bete behar dituzu.

## Erabil itzazu iturri fidagarriak

Aintzat har ezazu **egilea**. Beren lana gaikideek berrikusita argitaratu duten egileak nahiago dira, beren lana (dela blog bateko testu bat, dela liburu serie bat) eurek argitaratu duten egileen gainetik. Idazle askok ez dute trebakuntza egokia zientzialari gisa. Prentsa orokorreko ondorioak kontrasta itzazu zure jakintza eremuan nagusi diren ondorioekin. Al-bisteetako kalitatezko iturriek ere, ikerketa lanaren gainean eraikiak izan beharko lukete; beraz, saia zaituz iturri akademikoak bilatzen eta erabiltzen, informazio hori bera artikuluan txertatzeko, ahal den guztietan. Bigarrenik, aintzat har ezazu **argitaratzailea**. Aipa itzazu biologjaren edo zientziaren arloko argitaratzaile baten liburuak, testuliburuak edo monografikoak.

## Gai hauetarako, ahal dela, ez erabili iturri hauek:

- Gaikideek berrikusitako aldizkari artikulua, EBSCO-host eta JSTOR datu baseetan eta antzekoetan bilduak.

- Historialariek idatzitako liburuak, aldi bat laburbiltzen eta ebaluatzen dutenak.
- Izen oneko egunkarietako artikulua, gai baten historia laburbiltzen dutenak.

## Ez erabili iturri hauek:

- Blogak
- Prentsa orokorreko artikulua
- Gaikideek berrikusi ez dituzten beste iturri batzuk.

Erreferentziak txertatzeari buruzko Wikipediako laguntza eskuragarri dago lasterbide honetan: | lasterbidea [WP:Erref](#)

## Antola ezazu idazten ari zaren artikulua

Wikipediako artikulua bat idazteko estrategia ona izan daiteke lehendabizi informazioa bildu eta sarrerako atalaren zirriborroa egitea; gero, zirriborro hori artikulua gainerakoa idazteko eskematzat erabil dezakezu.

## Adieraz ezazu informazioa zehaztasunez

Eskolako lan gehienetan ez bezala, Wikipedian ez da onartzen ikerketa originalik. Wikipedia entziklopedia bat da, eta literaturak dioen jaso beharko luke, besterik ez. Ez da interpretatzeko edo analizatzeko tokia.

Ez itzazu konbinatu iturri batetik baino gehiagotatik hartutako adierazpenak, iturri horietan *berariaz* adierazi ez den ondorio bat iradokitzeke. Iturri fidagarri batek A esaten badu, eta beste batek B, ez amore eman idazten ari zaren artikuluan A eta B konektatzeko tentazioari.

### Zer da lasterbide bat?

[WP:Erref](#) erako testuari, Wikipedian, *lasterbidea* deritzo. Horrelako lasterbideak teklea ditzakezu Wikipediako bilaketa barran, bestela aurkitzen zailak diren orri espezifikoetara erraz iristeko.

### Zer da sarrerako atala?

Sarrerako atala Wikipediako artikulua bateko lehenengo atala da. Sarrerako atal on batek bizpahiru paragrafotan ar-

tikulu osoa laburbiltzen du, testuingurua azaltzen du, eta gaiaren alderdi garrantzitsu guztiak aipatzen ditu. Lehenengo esaldiaren hasiera izan ohi da **artikuluaren gaiaren izen arrunta** letra lodiz (izen arruntik baldin badago), eta sailkapen zientifikoa letra etzanetan:

**Ardia** (*Ovis aries*) ugaztun koadrupedo hausnarkari bat da, gizakiak ganadutzat hazia.

### **Iradokizuna: Espezieak izendatzea**

Izen zientifikoak letra etzanez idazten dira: generoaren lehen letra, larriz; eta epiteto espezifikoa osorik letra xehez:

- *Bombus vestalis*

## **Espezieei buruzko artikuluen motak**

Artikulu bakoitza bakarra izango da, baina hona hemen espezieei buruzko artikuluetarako gutxi gorabeherako jarraibide batzuk. Atalak erantsi, kendu edo berrantolatu ditzakezu, artikuluaren gaiari egokitzeko.

Historia artikuluek gai sorta zabala barne hartzen dute; diseinuko elementu batzuk berdinak dituzte hainbat artikulu motak, eta beste batzuk aldatu egiten dira artikulu mota batetik bestera.

### **Animalia espezie bati buruz idaztea**

- Sarrerako atala: Sarrerako atalean idatz ezazu izen arrunta, gehi izen zientifikoa (letra etzanez, eta generoa hasierako letra larriarekin).
- Anatomia eta morfologia: Zer itxura du? Deskriba ezazu itxura, sexuaren arabera dituen bariazioak adierazita.
- Banaketa eta habitata: Non bizi den eta zer harreman duen habitatarekin (besteak beste, dieta). Adieraz itzazu aldaketa historikoak, hala nola gizakiaren eskutik lurralde berrietara sartzea, berez lurralde berrietara hedatzea, edo iraungitzeak.
- Portaera: Portaera soziala, ehizatze edo elikatze teknikak, mehatxuei ematen dizkieten erantzunak, hazkuntza eta gorteatzea, eta abar.
- Taxonomia: Aurkikuntza, deskribapena, izen aldaketak. Generoko beste kideekiko erlazioa.
- Kontserbazio egoera: Galtzeko arriskuan, galdua, eta

abar. Jaso ezazu IUCN erakundearen Zerrenda Gorrian zehaztutakoa. Adieraz itzazu arriskuak, populazio aldaketak eta kontserbazio ahaleginak.

### **Landareei eta onddoei buruz idaztea**

- Sarrerako atala: Adieraz itzazu izen arrunta eta —letra etzanez— izen zientifikoa (generoa, hasierako letra larriarekin; espeziea, osorik letra xehez) eta zer itxura duen hazitakoan (urtekoa, bizikorra, zuhaixka, zuhaitza, eta abar).
- Azalpena: Nola identifika dezakezu? Deskriba itzazu hostoak, loreak eta —onddoei dagokienez— fruitu gorputzak (esporokarpoak).
- Taxonomia: Noiz aurkitu eta deskribatu zuten? Aipa itzazu etimologia, sinonimo nagusiak eta sailkapenean izandako aldaketak.
- Banaketa eta habitata: Non hazten da? Aipa itzazu geografia, garaiera, klima, zoru motak eta hazkunde dentsitatea (bakarrik ala multzoetan hazten da?). Ekologiari buruzko azpiatal batean deskriba daitzke ingurumenarekiko elkarrekintzak, hala nola erasotzen dioten izurri eta gaixotasunak, eta laguntzen dioten polinizatzaileak. Kontserbazio egoerari buruzko informazioa ere hemen sar liteke, edo atal berezi batean.
- Erabilerak (edo hazkuntza): Nola erabiltzen du gizakiak espezie hori? Hazkuntzari buruzko datuak sar ditzakezu.

Landare artikuluen adibide ona duzu «Haritz kandugabe».

### **Zer da taxotaula?**

Taxotaula informazio taula bat da, artikulu baten goialdeko eskuineko ertzean agertzen dena. Askotan, espeziearen irudi bat dakar, bai eta sailkapen sistema zientifikoan duen kokapena ere (hau da, erreinua, filuma, klasea, ordena, familia, generoa, espeziea eta abar).

Euskal Wikipedian, taxotaula automatikoa dugu, izaki bizidunen artikuluen hasieran jartzeko. Automatikoa denez, ez dituzu atal guztiak bete behar. Txantilo hori nola erabili jakiteko, idatz ezazu |lasterbidea WP:taxotaula lasterbidea. Euskal Wikipediako edozein orritako bilaketa laukian, eta argibideak dituen orria agertuko zaizu.

## Nola bila dezakezu irudi bat?

Wikimedia Commons webgunean (<http://commons.wikimedia.org>) dagoen edozein irudi erabil dezakezu artikulua irudiztatzeko. Commons nazioartekoa da; beraz, irudi gehiago aurkituko duzu izen zientifikoaren bidez (Erinaceus europaeus) euskarazko izen arrunta (triku) edo beste edozein hizkuntzatakoa idatzita baino.

Irudiak igo eta erabiltzeari buruzko argibide gehiago aurkituko dituzu *Illustrating Wikipedia* gidan. Zure ikastaroko orrian aurkituko duzu gida horretara iristeko lotura.

## Artikuluak garatzeko funtsezko puntuak

Idazten hasten zarenean, gogoan izan itzazu jarraibide hauek:

- Termino teknikoak lehenengo aldiz aipatzean, eman ezazu azalpen labur bat parentesi artean euskaraz, ahal bada.
- Espezie bati buruzko artikuluan, gai horri heldu, ez aldendu gai horretatik. Saihestu itzazu lotura zuzenik ez duten xehetasunak; adibidez, ikertzaileei buruzko informazioa.
- Era berean, ez sartu gehiegizko xehetasunik. Konparazio baterako, txori batek jaten dituen intsektu guzti-guztien zerrenda egin beharrean, egokia da besterik gabe intsektujalea dela esatea.

- Idatz itzazu datu objektiboak. Errespeta itzazu irakurleak, eta onar ezazu datu enpirikoek ez dituztela bi irakurle onorio berera eramango beti.

- Gizakiei lotutako mediku edo osasun informaziorik aipatzen baduzu, iturriak aipatzeko oso jarraibide zorroztak bete behar dira.

- Beti aipa itzazu iturriak. Lehendik dagoen artikuluan batean iturriak aipatzen ez dituen adierazpen bat aurkitzen baduzu, iturri bat gehitu dezakezu.

## Azken gogoetak

- Ez utzi lana azken unerako! Wikipediako artikulua on eta fidagarriak idazteko, denbora behar da. Ez itxaron azken minuturaino. Blokeatuta gelditzen bazara, eska iezaiozu irakasleari epe luzeagoa; hobe duzu hori, Wikipediara jarraibide hauek betetzen ez dituen edukia gehitzea baino.

- Begiratu zure orrian. Interesgarria izan daiteke zure artikulua nola hazten den ikustea, baina beharbada iruzkinak eta iradokizunak jaso dituzu beste wikilari batzuegandik, eta beharbada garapen berrietan parte hartu nahiko duzu.

- Idatz ezazu modu inpersonalean, datuetan oinarrituta, estilo entziklopedikoarekin; ez idatzi saiakeraren baten edo blog bateko testu baten modura. Ikus ezazu Wikipedia editatzea gida (lotura du zure ikastaroko orrian), tonuaren ezberdintasuna zein den gogoratu nahi baduzu.



Argitalpen honetan jasotako edukia eta irudiak Creative Commons Aitortu-PartekatuBerdin 4.0 lizentziaren pean daude erabilgarri, besterik adierazi ez bada.

Wiki Hezkuntzako marka erregistratzekotan dago. Wikipediako logoak eta hitz markak Wikimedia Fundazioaren marka erregistratuak dira. Marka horien erabilera Wikimediaren marka politikaren mende dago, eta horiek erabiltzeko beharbada beharrezkoa izango da baimena ([https://wikimediafoundation.org/wiki/Trademark\\_policy](https://wikimediafoundation.org/wiki/Trademark_policy)). Wikipediaren markei buruzko galderak egiteko, idatz ezazu [trademarks@wikimedia.org](mailto:trademarks@wikimedia.org) helbidera (ingelesez).

Eskerrik asko wikilari hauei: User:Another Believer, User:AustralianRupert, User:Cinderella157, User:Sadads eta User:Wehwalt, gida hau egiteko laguntza baliotsua eman dutelako.

Itzultzailea: Xabier Armendaritz.

